


Romo Kultur Etxea



Banaketa solairuz solairu

5.-S	• Entsegu-gelak (koruak, dantzak, rock,...). • Grabazio eta entzuketa-gelak. • Biltegia.
4.-S	• Euskaltegia (ikasgelak, zuzendaritzako bulegoak, irakasle-gela, ordenagailu-gela, ...).
3-S	• Nagusien Etxea (gimnasioa, tb- eta irakurketa-gelak, batzar-aretoak, ile-apaindegia, podologia-kontsultategia, masajista, bainugelak, ...). • Erabilera anitzeko aretoak, Nagusien Etxea eta elkarte eta erakunderentzat (bilerak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, proiektzioak,...).
2-S	• Bebeteka. *Haur eta Gazte Liburutegia. • Erabilera anitzeko aretoak elkarte eta erakunderentzat (bilerak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, proiektzioak,...). • Egoteko ororen gunea. • Administrazio-eremua.
1-S	• Liburutegia eta bulegoak. • Hemeroteka. • Ikasketa-gelak.
BEHE -S	• Informazio Gunea. • Erakusketa-gela. • Kafetegia eta jangela. • Gaztelekua.
SOTOA	• Erabilera anitzeko Aretoa (kontzertuak, antzezlan txikiak, proiektzioak, hitzaldiak, dantzak, ...). • Zenbait azpiegitura (aldagelak, biltegia, gela teknikoak, ...).

II. Fasea: fatxada, estalkiak, trenkada-multzoa eta instalazioak

- **Egoera:** II. Fasea esleitzeko prozedura zabalik da. Fatxada, estalkiak, trenkada-multzoa eta era guztietako instalazioak eraikitze lanak dira (elektrizitatea, iturgintza, elektronikak, eta abar).
- **Lizitazio-aurrekontua:** 5,5 milioi euro inguru (BEZ barne).
- **Egikaritze epea:** 17 hilabete. Lanak datorren maiatzean hasita aurreikusita dago.
- **Hainbat erabilera:** zentro soziokultural berriak, sototik hasi eta bosgarren solairuraino, 20 bat erabilera desberdin barne hartuko ditu, aukera emanez jarduera-sorta zabal batean parte hartzeko: hala nola, kontzertuak eta antzezlan txikiak, proiektzioak, hitzaldiak, bilerak, ... eta zenbait zerbitzuz gozatzeko: besteak beste, Liburutegia, Bebeteka, Gaztelekua, Nagusien Etxea, Euskaltegia, areto nagusia, erabilera anitzeko gelak eta koru, dantza, musika,... entsegu-gelak.

Nagusien Etxea

- **Azalera:** Nagusien Etxeak beteko du hirugarren solairuko zatirik handiena eta, hortaz, gaur egun eraikin zaharrea egiten diren jarduera guztiak ez ezik, gerora abiatu daitezkeen ekintza berri guztiak ere egin ahal izango dira bertan. Instalazio modernoak eta erabiltzaileentzat egokiak direnak izango ditu.
- **Solairuko zerbitzuak:** gimnasioa, tb- eta irakurketa-gelak, batzar-aretoak, ile-apaindegia, podologia-kontsultategia, masajista, bainugelak, ...
- **Erabilera eskusibo eta lehentasunezkoa:** eskusibotasuna eta behar duten autonomia izango dute zerbitzua gestionatzeko, eta lehentasuna izango dute alboko beste gunek batzuk, bai euren solairukoak bertakoak baita eraikineko gainontzeko solairuetako zerbitzuak erabiltzeko: kafetegia eta jangela (behe solairua), liburutegia eta hemeroteka (1. solairua), erabilera anitzeko aretoak (2. solairua), ...
- **Sarbideak:** 3. solairura iristeko hiru igogailu izango dira, horietako batean 21 lagun sartzen dira eta beste bietan 9na lagun, irisgarritasuna erabat bermatuz.

Gaztelekua

Gazteek, tailerentzako gelak, kontsola eta ordenagailu-guneak eta komunak izango dituzte. Gaztelekua zabaldua, harrera oso ona izango du zerbitzuak Romo eta Areetako auzoetako nerabeen artean, bere potentzialtasun handienera iristen baita hura erabili ohi dutenen aisialdi-guneetatik oso gertu egonda. Bere kokapenak, eremu horretan, nolabait lan egiten duten gazterien gainontzeko eragilerekin sarean jardutea erraztuko du. Gaztelekuak sarbide banandua edukiko du.

Ba al zenekien...

... Nagusien Etxeak gaur egun oraino eraikinean eskaintzen diren zerbitzu eta jarduera guztiak eskaini ahal izateko espazioak izango dituela? Telebista-gela, ikasgela ludikoa eta prestakuntzarako, gimnasioa, billar-gela, ile-apaindegia, podologia, masajista, eskulan-gela, margo-gela eta abarrrera bideratutako espazioak izango ditu eta Romoko Kultur Etxeak izango dituen gainerako erabilera eta espazioez ere gozatu ahal izango dute, hala nola, udalerriko liburutegirik handiena, hemeroteka, kafetegia, jangela, erakusketa-aretoa, ekitaldi-aretoa, musika-ikasgelak, etab.

Xehetasunez...

Energiari dagokionez oso eraginkorra izateko helburuarekin proiektatu da eraikina, energia kontsumo optimoa bermatzeko eta CO2 isuriak murrizteko. Energia eraginkortasunaren bere ziurtagiriak B Mailako sailkapena izango du, izan litezkeen seietaik bigarrena dena..